



1

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*309/2023 Foru Agindua, uztailaren 13koa, zeinaren bidez aldatzen baita 679/2014 Foru Agindua, abenduaren 23koa, enpresaburuek, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortenaren 036 eredia onetsi eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartela ezartzen duena.*

Abenduaren 23ko 679/2014 Foru Aginduaren bidez onetsita geratu zen enpresaburuek, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortenaren 036 eredia, bai eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartelari dagokiona ere.

Geroago, urriaren 2ko 416/2014 Foru Aginduak, azaroaren 7ko 512/2019 Foru Aginduak eta uztailaren 14ko 410/2021 Foru Aginduak 036 eredia aldatu zuten, haren edukia zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamenduan, fakturazio betebeharraren erregelamenduan eta balio erantsiaren gaineko zergaren araudian sartutako aldaketetara egokitzeko, aldaketa horiek eduki horretan zuten eragina kontuan hartuta.

Foru agindu honen xedea da 036 eredian behar diren aldaketak sartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru administrazioarekiko harremanetan zergapeko jakin batzuek bitarteko elektronikoak erabiltzeko duten obligaziora egokitu dadin.

Zehazki, identifikazio zenbakia eta egoitza fiskala edo soziala aldatzeko entitateek aurkeztu behar dituzten aitorten kasuan, edo desegin, likidatu edo tokiz aldatzeagatik baja eskatzeko aurkeztu beharrekoetan, esan beharra dago aitorten horiek orain ezin direla paperean aurkeztu, eta zergapeko horiek nahitaez bide elektronikoz aurkeztu behar dituzte esandako aitortenak.

Aurrekoarekin lotuta, identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartelaren eredia ere aldatzen da, txartel hori bide elektronikoz izapidetuko baita, PDF formatuan.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Aldatzea abenduaren 23ko 679/2014 Foru Agindua, enpresaburuek, profesionalek eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortenaren 036 eredia onetsi, eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartela ezartzen duena.*

Aldaketa hauek sartzen dira abenduaren 23ko 679/2014 Foru Aginduan, enpresaburuek, profesionalak eta beste zergapeko batzuek zerga ondorioetarako aurkeztu behar duten zentsu aitortpenaren 036 eredia onetsi, eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartela ezartzekoan:

*Bat.* 8. artikuluko bigarren apartatua honela geratzen da idatzita:

«Bi. Ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, aipatutako 1.1 artikuluan sartzen diren zergapekoek bide elektronikoz bakarrik aurkeztu behar dute eredu informatiboa.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, elektronikoki izapidetzeko aukera erabilgarri ez dagoen bitartean, paperean aurkeztu beharko dira honako zentsu aitortpenak:

- a) Identifikazio fiskaleko zenbaki bat eskatzen duten entitateen aitortpenak.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia errebokatua duten zergapekoen aitortpenak.
- c) Abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gipuzkoako Zerga-bilketa Erregelamenduaren 62. artikuluan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 120. artikuluan xedatutakoarengatik behin-behineko baja egoeran dauden zergapekoen aitortpenak.»

*Bi.* Foru aginduaren I. eranskinaren ordeztu, foru agindu honen I. eranskina ezartzen da.

*Hiru.* Foru aginduaren II. eranskinaren ordeztu, foru agindu honen II. eranskina ezartzen da.

*Azken xedapen bakarra.* Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2023ko uztailaren 13a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (5363)

#### I. ERANSKINA

##### ZENTSU AITORPENAREN 036 EREDUA



#### II. ERANSKINA

##### IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIAREN TXARTELA



